

# EL DIARIO VASCO

Zumaia

## Euskal Jai Egunean lana egiteko deialdia herriko taldeentzat

S.U.

ZUMAIA.

Viernes, 5 de julio 2024, 20:06

Comenta



Abuztuaren 9an ospatuko da aurten Euskal Jai Eguna eta, ohikoa denez, herri bazkarian eta sagardo dastaketan lana egiteko deialdia zabaldu du Udaleko kultura sailak herriko.

Bazkari herrikoian zerbitzatzen elkarte edo talde batentzako lana egongo da. Lan honetako ezaugarri nagusia da 400 laguni herri bazkaria zerbitzatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta tresnak ezartzea, bazkaria atera, txartelak kendu eta karpara sarrerak zaintzea, eta baita ondorengo txukuntze eta jasotze lanak.

Guztia kultur sailaren ordezkariekin eta herri bazkariko sukaldari taldearekin lotuko da.

Sagardo dastaketan, berriz, 10 sagardotegitako sagardoa eskainiko da, eta horretarako aurrez edalontziak salduko dira.

Hala, taldearen lana izango da egun horretan postuak ezartzea, basoak saldu eta sagardoa banatzea, eta aurrez eta ondoren beharrezko lanak.

Zumaiako herria edota bere biztanleen onurarako, kirol, kultur edo gizarte mailan, etekin ekonomiko propiorik gabe, modu iraunkorrean lan egiteko eratu diren elkarteak aurkez daitezke deialdira. Elkarte hauek Udalak herriko taldeen artean diru-laguntzak emateko ordurako onartutako oinarri berak bete beharko dituzte (Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin zorrik ez dutela ziurtatu). Horrez gain, euskaraz jarduteko gai izan beharko dute, eta, batik bat sagardoa banatzeko orduan, ez dira adin txikikoak izango.

Talde interesdunek uztailaren 21era bitartean eman ahal izango dute izena Alondegia kultur etxean: 943.861056 telefonoan edo [kultura@zumaia.eus](mailto:kultura@zumaia.eus) helbide elektronikoan. Izen ematearen arabera taldeei bilera batera dei egingo zaie beharrezko azalpenak emateko. Taldeen arteko zozketa bilera horretan egingo da.

 Comenta

 Reporta un error









